

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 4019

*EBAZPENA, 2021eko uztailaren 2koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordeari eskuordetzen baitzaio Ajuria Eneako Harrera Zentroaren obra gauzatzeko beharrezkoak diren prestazio guztien kontratazioa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren I. tituluko III. kapituluaren 1. atalaren arabera, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 20.1 artikulua arabera, Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzak beteko ditu hainbat sailerako diren zerbitzuen, artxiboen eta argitalpen-jardueraren eta informazioaren teknologien arloko eskumenak.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 20.2.a) artikulua Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordeari esleitzen dio kontratazio-organoari dagozkion eskumenak erabiltzea, bai eta gastuak baimentzea ere, higiezin kudeaketa bateratuan sustatzen diren kontratazio publikoetan.

Lehendakaritzak Ajuria Eneako Harrera Zentroaren obra gauzatzeko eskatu du. Egin beharreko obren ezaugarri espezifikoak ikusita, komenigarritzat jo da bai obraren kontratazioa bai egin beharreko lanen egikaritzea eta zuzendaritza Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzako eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako zerbitzu espezializatuek burutzea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 61.2 artikulua (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) aurreikusten du kontratazio-organoek gai horretan dituzten eskumenak eta ahalmenak eskuordetu edo deskontzentratu ahal izango dituztela, kasu bakoitzean aplikagarri diren administrazio-organoak eskuordetzeko edo deskontzentratzeko arau eta formalitateak betez.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua honako hau xedatzen du:

«1. Administrazio publikoetako organoek beste organo batzuei delegatu diezazkiekete beren eskumenak, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta hierarkikoki bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden organismo publikoak edo zuzenbide publikoko entitateak badira.»

Horregatik, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 8.2.d) artikulua ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordeari eskuordetzea Ajuria Eneako Harrera Zentroari buruzko obra gauzatzeko

beharrezkoak diren prestazio guztiak kontratatzeko eskumena (14LHK/14S/2019 espedientearen arabera).

Eskuordetzea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak jasotzen dituen gai hauetara zabalduko da:

- Kontratua prestatzera: bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 1. atala.
- Kontratua esleitzera: bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 2. atala.
- Kontratuaren ondorioak, betetzera eta azkentzera: bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. atala.
- Obra-kontratua gauzatzera: bigarren liburuko II. tituluko I. kapituluko 2. atala.
- Kontratua aldatzera: bigarren liburuko II. tituluko I. kapituluko 3. atala.
- Kontratua betetzera: bigarren liburuko II. tituluko I. kapituluko 4. atala.
- Kontratua suntsiaraztera: bigarren liburuko II. tituluko I. kapituluko 5. atala.
- Lanak ordaintzera: bigarren liburuko I. Kapituluko 2. ataleko 3. azpiatala.
- Kontratazio-organoari Ajuria Eneako Harrera Zentroa eraikitzeko obrak egiteko eta obra zuzentzeko dagozkion gainerako eskumenetara.

Bigarrena.– Eskuordetze hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 2a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,  
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.